

BALOREZKO PROPOSAMENA: EJNS

Gure produktua tobogan bat da, sutea izanez gero eraikin bat kanporatzeko. Tobogana leihoan jartzen da, ez da finkoa izango, itsatsiko da eta botoi batekin funtzionatuko du.

Enpresa hau sortzea erabaki dugu, sektorean bete gabeko beharra ikusi dugulako. Suteak prebenitzen dituzten enpresa gehienek metodo bera erabiltzen dute: eskailerak. Guk uste dugu metodo azkarra eta eraginkorragoa txirrista batean ibiltzea litzatekeela. Gure iritziz, dugu aglomerazioak ekiditen dituelako, eraikina azkarrago husten delako, beste irteera bat ematen duelako, erredurak izateko arriskurik gabeko irteera segurua ahalbidetzen duelako, emergentziako eskailera batek baino askoz gutxiago okupatzen duelako, hau da, leku txikietarako egokiagoa delako. Baliabide ekonomikorik ez duten lekuetan ere bai. Adibidez: eskailera batzuk egiteko gasturik ezin duen bizilagun-komunitate txiki bat, gure produktua askoz merkeagoa da, eta eskailerak edo beste metodoren bat baino askoz jende gehiagoren eskura dago.